BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

5895

EBAZPENA, 2012ko abenduaren 10ekoa, Ingurumeneko sailburuordearena, 2011-2018ko Ingurumen Ikuskapenerako eta Kontrolerako Plana onartzeko dena.

2011ko uztailaren 5eko bilkuran, Eusko Jaurlaritzako Kontseiluak «Euskadi 2020ko Garapen Jasangarrirako Estrategia. EcoEuskadi 2020» onartu zuen. Estrategia horren agiriak 9 helburu estrategiko jasotzen ditu, eta Jaurlaritzaren planen oinarri izan behar dira. Helburu estrategiko horien artean, ondokoak daude, eta ingurumen plangintza egiteko balio dute.

● EAE ekonomia berritzaile, lehiakor, ekoeragingarri eta ireki legez jartzea.

● Gure natur baliabideak eta biodibertsitatea babestea, lurraldearen eta azpiegituren, ekipamenduen eta etxebizitzen antolamendu abegitsua eta orekatua zainduta.

● Energia mendekotasuna minimizatzea, jatorri fosileko energien erabilera gutxituz eta negutegi efektuko gasen emisioak eta klima aldaketaren ondoreak murriztuz.

● Lurraldeko egituratzea eta kanpoarekiko lotura baldintza onenekin errazteko mugikortasun integratu jasangarriagoa garatzea.

● Kalitateko balioen hezkuntza sistema, eskola arrakasta lortzekoa, malgua, jasangarritasuna kontuan hartzen duena eta lan merkatuak eta gizarteak bizitzaz osoan eskatutako kualifikazioei egokitua lantzea.

● Administrazio publiko berritzaile, eragingarria, irekia eta gardena lortzea.

Euskal Herriko ingurumena babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean xedatutakoaren arabera, EAEko ingurumen politika lau urtean behin egindako Ingurumeneko Esparru Programan (IEP) azaltzen da. Gobernuak onartzen du programa hori eta Legebiltzarrari helarazten zaio.

Esparru horretan 2002-2006ko I. IEP eta 2007-2010eko II. IEP landu dira. Gobernu Kontseiluak 2011ko uztailaren 12ko bileran EAEko III. Ingurumeneko Esparru Programan (IEP) onartu zuen, eta bertan, 2011-2014rako ingurumen helburuak eta lehentasunak adierazten dira, honelaxe: «Eredu aldaketa sustatzea, administrazioaren eta administratuaren arteko harremanetan, aurretiko kontrolak gutxituz, agenteak erantzule eginez eta ikuskaritza euren zerbitzuan jarriz».

Eusko Jaurlaritzak 2004an onartu zuen Ingurumen Ikuskapenerako eta Kontrolerako Plana, eta indarraldia 2003-2007 zen, baina azkenik 2008ra arte luzatu zen.

Planak, ingurumen eskumenak Ingurumen Sailaren esku daudenez, ingurumen ikuskapen integratuen plangintza berritzailea egin zuen, beraz, administrazio egintza bakar batean ingurumen bektore guztiak (airea, ura, lurzorua, hondakinak, prebentzioa, zarata eta dardarak, etab.) arautzeko arautegia betetzen den ala ez egiaztatzen da, lehen, aldiz, ingurumen alderdi bakoitzarentzako ikuskapen berezia egiten zen.

2002-2020 aldirako Garapen Jasangarriaren Euskal Ingurumen Estrategian ezarritakoarekin bat etorrita, Ingurumen arloko Ikuskaritza eta Kontrolerako Planak ondokoa dio: Ingurune garbi eta osasungarria lortzeko ahaleginak egin behar dira, EAEko airearen eta lurzoruen kalitatea hobetuz,

hondakinak murriztuz eta hondakinon balioa atereaz eta EAEn garatutako jarduerei ingurumen arautegia betearaziz.

Horretarako, helburu estrategiko batzuk definitzen dira, Ingurumen arloko Ikuskaritza eta Kontrolerako Planean, bertan jasotako jarduketa guztiak bideratzeko:

a) EAEko IPPC enpresek ingurumen-araudia betetzen dela bermatzea.

b) Ingurumenerako arriskurik handiena dakarten legeztatu gabeko jarduketak identifikatu eta arautzea.

c) Arriskurik handiena duten IPPC ez diren jarduketek ingurumen arautegia betetzea, ingurumenean kalte esanguratsua eragin dezaketen jarduketei berebiziko garrantzia emanda.

d) Kopurua edo arriskugarritasuna dela eta, ingurumenerako kaltegarrienak diren jarduketek kudeaketa arautegia betetzea.

e) EAEko industri jarduerekin lotutako ingurumen arazoak konpontzen eta kontrolatzen laguntzea.

f) Ingurumen intereseko eremuak babestea ingurumen kalteetatik.

g) Ingurumenean eragina duten gorabeheren eta istripuengatiko oharrak, kexak eta salaketak kudeatzea.

h) Substantzia kimikoen eta nahasketen araudia (REACH-CLP) betetzea, ingurumenerako oso kantegarriak direnean.

i) Zerbitzuak ikuskatzeko duen gaitasuna handitzea.

j) Ikuskapenak Europako testuinguruaren arabera egitea, helburuei, estrategiari eta irizpideei dagokienez.

2008-2011ko Ingurumen Ikuskapenerako eta Kontrolerako Planaren txostena eman zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Batzordeak 2011ko urriaren 26ko bileran.

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko den abenduaren 22ko 629/2009 Dekretuan esleitzen zaizkidan eskumenez baliatuz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– 2011-2018ko Ingurumen Ikuskapenerako eta Kontrolerako Plana onartzea, eta agiria hitzarmen honen eranskinean dago.

Bigarrena.– 2011-2018ko Ingurumen Ikuskapenerako eta Kontrolerako Planaren edukia hedatzeko beharreko neurriak hartzea.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko abenduaren 10a.

Ingurumeneko sailburuordea,
M.ª ARANZAZU LETURIONDO ARANZAMENDI.

ERANSKINA

1.– SARRERA.

1.1.- Aurrekariak: Ingurumenaren arloko Ikuskaritza eta Kontrolerako Plana 2003-2010.

Ingurumenaren arloko Ikuskaritza eta Kontrolerako lehenengo Plana 2004. urtean onartu zuen Eusko Jaurlaritzak; plan hark 2003tik 2007rako iraunaldia izan behar zuen hasiera batean, baina azkenean 2008ra arte luzatu zen.

Ingurumen-eskumenak Ingurumen Sailean bilduta zeudela aintzat hartuta, lehen Planak ingurumen-ikuskapen integratuen plangintza berritzailea egin zuen, zeinaren arabera, lehen aldiz, administrazio-egintza bakar batean egiaztatuko baitzen ingurumen-bektore guztiak (airea, ura, lurzorua, hondakinak, prebentzioa, zarata eta dardarak, etab.) erregulatzeko arautegia betetzen zen ala ez, ordura arte ikuskapen berezia egiten baitzen ingurumen-alderdi bakoitzarentzat.

Plangintza hark arlo hauetan jarri zuen arreta, batik bat:

1. Kutsatzeko ahalmen handiena zuten enpresak, batez ere uztailaren 1eko 16/2002 Legeak, kutsaduraren prebentzioari eta kontrol integratuari buruzkoak (aurrerantzean IPPC), eragindakoak.
2. Ingurumen-arazoak zituzten edo ingurumenaren ikuspuntutik babesteko interesa zuten eremuak; eta
3. Ohartarazpenen kudeaketa (kexak, salaketak, gorabeherak, istripuak, larrialdirako planak, ingurumen-kalteak, etab.).

EAEn, hasieratik, ikuskaritzaren azken helburua zen jarduera ekonomikoek beren gain hartzea ingurumenaren arloko araudia betetzea bermatzeko erantzukizuna, eta erantzukizun hori iraunkorra izatea, autokontrol-prozedura baten bidez.

IPPC Legeak eragindako enpresen hasierako egoera kontuan hartuta, epe luzerako estrategia bat ezarri zen, honako mugarri hauek zituena:

- Lehenbizi, IBB izapidetu baino lehen, EAEko Ingurumenaren arloko Ikuskaritza Zerbitzua antolatu zen eta enpresa gehienen ingurumen-ebaluazio zehatza egin zen, kanpoko erakundeen laguntzarekin. Ebaluazio hark helburu bikoitza zuen: lehenik, enpresei apurka-apurka jakinaraztea ingurumenaren arloko administrazio-fiskalizazioaren aldaketa eta, bestea, araudia zein mailatan betetzen zen jakiteko hasierako diagnosi bat egitea, sektoreka, ingurumen-arrisku handieneko egoeretan lehentasunezko administrazioaren esku-hartzeak abiarazteko.
- Bigarrenik, jarduerak izapideak egiten hasi ziren IPPC Legean eskatutako IBBa lortzeko. Horrek aldaketa garrantzitsua eragin zuen egoera juridikoan eta eskumen-banaketan ikuskaritzari dagokionez; izan ere, baimen hori, udalek ematen dituzten jarduera- eta irekiera-baimenak ez bezala, ingurumenaren arlokoa da soilik, eta Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailburuordetzak ematen du.
- Azkenik, eta Planaren iraunalditik kanpo, hots, 2008 eta 2010 urteen artean, ikuskaritzalanak IBBetan ezarritako baldintzak betetzen zirela egiaztatzean oinarritu ziren, ebazpen eraginkorra lortzeko beharrezkoak baitziren. Jokabide haren asmoa zen funtsezko aldaketa sustatzea enpresek ingurumenaren arloko legedia betetzen zuten mailari zegokionez, eta bermatzea IPPC Legea bete behar duten enpresa guztiek, IBBa lortu ondoren, beren jarduera agindutako eskakizunekin guztiz bat zetorren moduan garatzea.

1.2.– Ingurumenaren arloko Ikuskaritza eta Kontrolerako Plan Berria 2011-2018.

Agiri honetan aurkezten den planak ziklo bat ixten du IPPC bete behar duten enpresentzat, eta horren helburu nagusia da azken pausoa ematea enpresak berak ardura daitezen ingurumen-araudia betetzeko autokontrola egiteaz, araudi hori iraunkorki errespetatuko dutela bermatze aldera. Horretarako, eta IBBak erreferentzia gisa hartuta, ikuskaritzak jarraipen-bisiten bidez lan egingo du, enpresek beren erantzukizun hori beren gain har dezaten.

Jarraipen-ikuskapen horiek berriki argitaratutako Industria Isurpenen Zuzentarau berria aintzat hartuta egingo dira, eta garrantzi berezia emango diote enpresek IBBen ebazpenetan jasotako autokontrol-baldintzak behar bezala barneratzeari eta praktikan jartzeari[1].

Kutsadura-ahalmen handieneko enpresen ikuskaritzarekin eta ohartarazpenei/gertaerei buruzko datuen kudeaketan egindako lanarekin batera, ingurumen-arazoak dituzten eremu edota egoerak bilatzeko lanari eutsiko zaio, industria-jarduerak ikuskatzeari esker horiek kontrolatzeko edo konpontzeko modurik badago.

Plan honetan, berrikuntza batzuk daude proposatutako helburuei dagokienez. Orain arte, legeztatuta edo legeztatzeko prozesuan zeuden jarduera ekonomikoetan egin dira ikuskapenak, batik bat. Datozen urteetan, berriz, ahalegin osagarria egingo da indarrean dagoen ingurumenaren arloko legediaren funtsezko alderdiei dagokienez legeztatuta ez dauden jarduerak bilatzeko.

Gainera, Planaren lehen fasean hondakinen mugimenduaren gaineko kontrolak egitea aurreikusten da, IMPEL sarearen eskutik Europan egiten ari direnen ildotik; kontrol horiei esker hasierako diagnosia egingo da araudiaren betetze-mailari eta horri lotutako arriskuei buruz, azken horiekin bat datozen baliabideak esleitzeko.

Ingurumenaren arloko Ikuskaritza Zerbitzuaren ardura da, orobat, gai kimikoei eta horien nahasketei buruzko araudia betetzen dela egiaztatzea. Hauek dira, zehazki, arauok: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko abenduaren 18ko 1907/2006 (EE) Erregelamendua, gai eta prestakin kimikoen erregistro, ebaluazio, baimentze eta murrizketari buruzkoa (aurrerantzean REACH); eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008ko abenduaren 16ko 1272/2008 (EE) Erregelamendua, gaiak eta nahasketak sailkatzeari, etiketatzeari eta ontzikiratzeari buruzkoa (aurrerantzean CLP). Lan hori beste agintaritza batzuekin koordinatuta gauzatuko da, autonomia-erkidegoen foroaren eta ILIIMen bitartez, bai eta Eusko Jaurlaritzako sailen arteko mahai baten bitartez ere.

Beste alde batetik, orain arte ikuskaritzako baliabide gehienak IPPC bete behar duten jardueretara bideratu badira ere, aurrerantzean IPPC bete beharrik gabe kutsadura-ahalmen handiena duten sektore eta enpresekin lan egiten hasteko asmoa dago, Industria Isurpenen Zuzentarauari[2] men eginez. Ikuskaritza ingurumen arloko arautegi sektorialean egongo da oinarrituta, Eusko Jaurlaritzako ingurumen-organoak arautegi horretarako eskumena badu.

Ikuskaritza eta Kontrol Plan hau urteko programen bidez gauzaraziko da; azken horiek, berriz, ikuskaritzako teknikariek kudeatu beharko dituzten proiektuen bidez exekutatuko dira. Hori guztia ingurumenaren arloko emaitzetan eta arriskuetan oinarritutako kudeaketa batera bidean, betiere.

---

[1] Autokontrolen barruan sartzen dira, Plan honen eraginetarako, bai barne-baliabideekin egiten diren kontrolak eta bai kanpo-erakundeei kontratatutakoak ere.

2 2010/75/UE Zuzentaraua, azaroaren 24koa, isurketa industrialei buruzkoa.

1.3.– EAEko ingurumenaren arloko ikuskaritza Europako testuinguruan.

2003ra arte, ingurumenaren arloko ikuskaritza bektoreka egiten zen EAEn, hau da, ingurumeneko administrazio-unitate bakoitzak (airea, ura, lurzoruak, etab.) bere arloari zegokion lana egiten zuen baimenei, kontrolari, zaintzari zein ikuskaritzari zegokienez. 2003an sortu zen Ingurumeneko Ikuskaritza Zerbitzua, baimenak izapidetzeak ematen duen lan-zamatik bereizita zegoen lan-talde bat edukitzeko. Zerbitzuaren egitekoa IBBen ingurumen-alderdi guztiak egiaztatzea izango zen, bai eta baimen-prozesuekin lotuta ez zeuden ikuskaritza-bisitak egitea ere.

Ikuskaritza-lanak egiteko modu berri hori bat dator ikuskaritzako ingurumen-agintaritzen sare europarrak (IMPEL) egindako agirietan jasotakoarekin, izan ere, Ikuskaritza Zerbitzua sortu zen unetik IMPELekin harremanetan jarri zen. 2006an Ikuskaritza Zerbitzua IMPELeko kide bilakatu zen eta, orduz geroztik, Europan garatutako hainbat proiektutan parte hartu du. Proiektu horiek helburu guztiz praktikoak dituzte, ikuskaritzaren eguneroko lanetara bideratuak (ikuskaritzen plangintza, ikuskaritza-metodologiak, araudia betetzea egiaztatzeko irizpideak, etab.). Sarea estatu kideetako ingurumen-ikuskaritzako agintaritzek osatzen dute, esan bezala, eta Europako Batzordearekin harreman zuzenean lan egiten du, Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiaren bitartez.

IMPELen parte hartzeak eta Ingurumeneko eta Landa eta Itsas Inguruneko Ministerioarekin ikuskaritzaren arloan lankidetzan aritzeak modu argian azaleratu zuen ingurumena babesteko lanek ikuspuntu zabalagoa izan behar dutela, ordura arte lurralde-esparrua soilik hartzen baitzen aintzat. Horrexegatik sustatu da autonomia-erkidegoetako eta Ministerioko agintaritzek parte hartzen duten sare bat sortzea, Ingurumenaren arloko Ikuskaritza Sarea (REDIA) izenez ezagutzen dena, hain zuzen ere. Sare horren helburua partaideak bata bestearekin lankidetzan aritzea eta elkarri informazioa ematea da, nagusiki.

Hala, bada, Ingurumeneko Ikuskaritza Zerbitzuaren oinarrizko hatsarreetako bat bilakatu da bere jardunak estatuan eta Europan garatzen direnekin bat etortzea.

Europako Batzordeak sustatu zuen 2001ean, IMPELekin lankidetza zuzenean, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak estatu kideen ingurumenaren arloko ikuskapenen gutxieneko irizpideei buruzko 2001/331/EE Gomendioa onartzea. Kontseiluak ikuskaritzako berariazko zuzentarau bat onartzeko eskatu zion Batzordeari eta, horren ondorioz, aipatutako Gomendioan aukera hura aztertzeko txosten bat idaztea proposatu zen.


Ebaluazio-txostena bukatutakoan, Batzordearen estrategiak ildo honi jarraitu zion: alde batetik, Gomendioa berrikustea (gaur egun horretan dihardu) eta, bestetik, ikuskaritza arautzen duten artikulu batzuk gehitzea berariazko araudiari. Azken hori gertatu da hain zuzen ere IPPC araudiaren aldaketan, Industria Isurpenen Zuzentarauaren bidez, bai eta gai arriskutsuak tartean dauden istripu larriei buruzko araudian ere, ingurumen-ikuskaritzari zuzenean eragiten ez dion arren. Gainera, beste arau batzuetan zuzenketak egitea proposatzen dute, ikuskaritzari buruzko xedapenak erantsiz, hala nola, hondakinak sortzeari eta kudeatzeari buruzko arauetan.

1.4.– Plana lantzeko prozesua.


Ikuskaritza Zerbitzuak «Doing the right things» («Gauza egokiak egiten») izeneko proiektua zuzendu duen IMPEL Sareko taldean parte hartu du. Proiektu horren fruiturik nabarmenetako bat *Ingurumenaren arloko ikuskaritzaren plangintza egiteko pausoz pausokako gida*[3] izan da. Agiri hori erreferentzia bilakatu da Europan, ez bakarrik ikuskapenen plangintza egiteko, baizik eta IMPEL Sarearen lan eta proiektu guztiak antolatzeko eta Batasuneko araudian ikuskaritzarekin lotutako artikuluak idazteko ere, adibidez, Industria Isurpenen Zuzentarauaren 23. artikulua.

[3] http://impel.eu/wp-content/uploads/2010/02/2007-11-dtrt2-step-by-step-guidance-book-FINAL-REPORT.pdf

Ingurumenaren arloko Ikuskaritza eta Kontrolerako 2003-2008 Plana gauzatzearekin lortutakoa aztertu ondoren, Ingurumen Sailburuordetzako zerbitzuek egindako ekarpenak oinarritzat hartuta prestatu da Plan hau, gorago aipatutako Gidan ezarritako pausoak aintzat hartuta. Horra hor, ikuskaritza-zikloa laburbiltzen duen beheko grafikoan, pauso bakoitza. Goiko aldean plangintza dago, aldi berean lau pausotan banatzen dena: testuingurua deskribatzea, lehentasunak ezartzea, helburuak eta estrategiak zehaztea, eta plangintza eta berrikuspena egitea. Beheko aldean ikuskaritza gauzatzeko orduan jarraitu beharreko azken hiru pausoak ikus daitezke.



Gidak zehazki azaltzen ditu ikuskaritzen plangintzako pauso horietan guztietan egin beharreko lanak. Hurrengo irudian laburbildutako zeregin horiek osatzen dute, hain zuzen ere, Plan berri honen egituraren oinarria.



2.– TESTUINGURUAREN DESKRIBAPENA.

2.1.– Eusko Jaurlaritzaren ingurumen-politika.

Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak 2001eko uztailaren 5eko bileran onartu zuen «Euskal Autonomia Erkidegoko Garapen Iraunkorrerako Estrategia, EkoEuskadi 2020» agiria. Estrategia horren agiriak 9 helburu estrategiko jasotzen ditu, eta Jaurlaritzaren plan guztien oinarri izan behar dute. Helburu estrategiko horietako batzuk ingurumen-plangintza egiteko aintzat hartu beharrekoak dira, hona hemen:

- EAEko ekonomia berritzailea, lehiakorra, ekoeragingarria eta irekia izatea.
- Gure natur baliabideak eta biodibertsitatea babestea, lurraldearen, azpiegituren, ekipamenduen eta etxebizitzen antolamendu abegitsua eta orekatua zainduta.
- Jatorri fosileko energiekiko mendekotasuna ahal bezain beste urritu eta negutegi-efektuko gasen isurpenak eta klima-aldaketaren eraginak murriztea.
- Mugikortasun integratuko eredu jasangarriagoa garatzea, lurraldearen barne-egituraketa eta kanpoarekiko lotura lehiakortasun-baldintza hobeetan egitea erraztuko duena.
- Kalitatezko hezkuntza- eta balio-sistema bat sortzea, eskola arrakasta lortzera bideratutakoa eta malgua izango dena, eta lan merkatuak eta gizarteak bizitza osoan eskatutako kualifikazioetara egokitutako hezkuntza- zein prestakuntza-edukiak (jasangarritasuna barne, horren alderdi guztietan) izango dituena.
- Administrazio publiko berritzaile, eragingarri, eskuragarri eta gardena lortzea.

Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean ezarri legez, EAEko ingurumen-politika lau urtean behin egindako Ingurumeneko Esparru Programan (IEP) azaltzen da. Gobernuak onartzen du programa hori eta, ondoren, Legebiltzarrari helarazten zaio.

Gaur arte bi esparru-programa landu dira: 2002-2006 aldiko I. IEP eta 2007-2010 aldiko II. IEP. Horietan, berariaz aipatzen ziren helburu hauek: «ingurumenaren arloko lege-hausteei aurre hartzeko eta aurka egiteko kontrol- eta zaintza-plan eraginkor eta koordinatua ezartzea» (I. IEP); «ingurumenaren arloko araudian jasotako eskakizunak betetzen direla ziurtatzea, bai eta araudi hori aplikatzean agintzen diren baimen, lizentzia eta gainerako administrazio-egintzetan ezarritako baldintzak ere», eta «Ingurumenaren arloko Ikuskaritza eta Kontrolerako 2003-2007 Plana gauzatzen jarraitzea eta 2008-2011 Ikuskaritza Plan berria prestatzen hastea» (II. IEP).

Gobernu Kontseiluak 2011ko uztailaren 12ko bileran onartu zuen EAEko III. Ingurumeneko Esparru Programa, 2011-2014rako ingurumen helburuak eta lehentasunak ezartzen dituena. Programaren lan-ildoa honela laburbiltzen da: «Eredu aldaketa sustatzea administrazioaren eta administratuaren arteko harremanetan, aurretiko kontrolak gutxituz, eragileak erantzule eginez eta ikuskaritza azken horien zerbitzuan jarriz»

Ildo horretatik, funtzioen berrantolaketa berria jo da beharrezkotzat, arlo publiko eta pribatuaren arteko erantzukidetasunaren eta bateratzearen printzipioak ezartze aldera. Horrek eredu-aldaketa ekarriko du, bai administrazioak bai sektore pribatuak parte hartzen duten ingurumen arloko administrazio-prozeduretako espedienteen kudeaketan. Helburu horiek lortzeko, berriki onartu da Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Lankidetzako Erakundeak arautzen dituen eta bete beharreko funtzioak eta baldintzak ezartzen dituen Dekretua, eta dagokion administrazio-erregistroa sortu da.

2.2.– Ingurumenaren kalitatea eta ikuskaritza.

Ingurumen-emaitzetan oinarritutako kudeaketa da Ingurumeneko Ikuskaritza Zerbitzuaren oinarrizko hatsarreetako bat. Hori dela eta, Zerbitzuaren egitekoen plangintza on bat egiteko, lehen pausoa da bilatzea zein egoeratan lagun dezakeen ikuskaritzak dagokion ingurunearen (airea, ura, lurzoruak, etab.) kalitatea hobetzera. Gauzak horrela, guztiz beharrezkoa da ingurumenaren kalitateari buruzko informazio-sistemak eguneratuta edukitzea. Hala, bada, honako baliabide hauek erabiliko dira EAEn esku hartzeko puntuak identifikatzeko oinarrizko informazio gisara:

- EAEko Airearen Kalitatea Zaindu eta Kontrolatzeko Sarea.
- EAEko Azaleko Ur-masen Kalitatea Zaintzeko Sarea.
- Lurrazpiko Urak Kontrolatzeko Oinarrizko Sarea.
- Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dauden edo izan diren lurzoruen inbentarioa.

Informazio-sistema horien emaitzak eta dokumentazioa urtero berrikusiko dira urteko ikuskaritza-programak prestatzeko eta, funtsean, ikuskaritzaren bidezko esku-hartzea lagungarri izan daitekeen arazoak edo egoerak bilatzeko balioko dute (arazook konpondu edo hobetzeko, esan nahi baita).

Ingurumen-arazoak hautemateko beste bide bat da ingurumenean eragina duten gertaera edo istripuei buruzko ohartarazpen, kexa eta salaketen kudeaketa. Lan horretan jasotzeko datuak datu-base batean biltzen dira eta, horrela, beste oinarrizko informazio-iturri bat sortzen da, herritarrek ingurumenaren kalitateari buruz duten iritziarena, alegia. Informazio-iturri horren bidez administrazioaren ohiko zaintza-sistemekin hauteman ezin daitezkeen arazoak identifikatu ahalko dira.

2.3.– Kontrolatutako jarduerak.

Plan honen ondorioetarako, Planak eragindako jardueratzat joko dira administrazio-baimena edo -prozedura behar dutenak, baldin eta honako ingurumen-alderdi hauetakoren bat aintzat hartzen badute, gutxienez ere: hondakin-urak, atmosferarako isurpenak, hondakinen kudeaketa, lurzoruen babesa, ingurumena kaltetzeko arriskuen prebentzioa, eta zarata eta bibrazioak. Planaren esparruan sartzen dira, orobat, gai kimikoen araudiaren (REACH-CLP) mendeko jarduerak. Jarduera horietatik gehienak industria-lurzoruan kokatzen dira.

Ingurumen Sailburuordetzak Ingurumen Informazioaren Kudeaketa Integralerako Sistema bat du, IKS-eem izenekoa. Sistema horrek ematen du ingurumen-ikuskaritzaren mende jar daitezkeen jarduera, operadore edo enpresen datu-basea elikatzeko informazioa. Informazio hori ingurumen-organo horren gainerako zerbitzuetan eta URA - Uraren Euskal Agentzian eskuragarri dagoenarekin osatzen da, bai eta Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuetan eta lurraldeko zein tokiko beste administrazio batzuetan duten informazioarekin ere, beharrezkotzat jotzen denean.

Plan honen helburuetako bat da eskuragarri dauden zerrendak eta datu-baseak elkartu eta ikuskaritzaren mendeko jardueren datu-base berezi bat sortzea, zeina ingurumenean eragina duten jardueren Euskal Autonomia Erkidegoko erregistroan –183/2012 Dekretuaren bidez sortua– integratuko baita.

Aurreko Planaren ondoan, berrikuntza aipagarria da lehentasun handia emango zaiela jardunean aritu arren dagozkien fitxategietan erregistratuta ez dauden jarduera ekonomikoei.

2.4.– Eremu objektiboa.

Ingurumenaren arloko arauetan eskatutako baimen, lizentzia, komunikazio eta gainerako eskakizunetara mugatzen da Plan honen eremu objektiboa, EAEko ingurumen-organoak arau horiek aplikatzeko eskumena edo kudeaketa-agindua duen heinean. Zehazki, alderdi hauek barne hartu ahalko dituzte ikuskapenek:

I. **Ura.** Ikuskaritza instalazioen barnean hondakin-urekin egiten den kudeaketara mugatuko da, eta baimenean ezarritako mugak betetzen direla egiaztatzean datza (isurpen-tokian).

II. **Airea.** Jarduera ekonomikoek duten atmosferarako isurpenen baimenean edo legerian ezarritako baldintzak kontrolatu eta ikuskatuko dira.

III. **Hondakinak. Hondakinak.** Hondakinak kudeatzeko eta ekoizteko indarrean dagoen legeriak xedatutakoa eta ezarritako betebeharrak kontrolatu eta ikuskatuko dira.

IV. **Lurzoruen kalitatea babestea.** Ikuskatutako jardueren lurzoruaren egoerari buruzko aurretiazko txostenak badaudela eta egokiak direla egiaztatuko da.

V. **Zaratak eta bibrazioak**, industria-lurzoruan soilik.

VI. **Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuak:** jarduera-baimenak, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko 16/2002 Legea, uztailaren 1ekoa, eta Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazioa.

VII. **Ingurumena kaltetzeko arriskuen prebentzioa.**

VIII. **Gai kimikoak eta nahasketak.**

2.5.– Jarduera ekonomikoen ingurumen-ikuskaritzaren antolamendua EAEn.

Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege orokorrak eta Urari buruzko ekainaren 23ko 1/2006 Legeak ezartzen dituzte Euskal Autonomia Erkidegoan ingurumenaren arloko ikuskaritzak dituen oinarrizko eskumenak, Europako zein estatuko gaienerako arauetatik eratorritako beste betebeharrei eragin gabe.

Laburbilduz, ingurumen-organoari egozten zaizkio organo horrek berak emandako baimenak betetzen direla ikuskatzeko eskumenak, bai eta beste administrazio-prozedura batzuk eta, oro har, prozedura horiek arautzen dituzten arauetan jasotako ingurumenaren arloko eskakizunak betetzen direla zaintzekoak ere. Halaber, ingurumen-organoarenak dira jarduera-baimena behar duten jardueren sektoreko legedia ikuskatzeko eskumenak, bai et auretara egindako isurpenei dagozkienak ere. Azken arlo horretan, ingurumen-organoak eskumenak ditu konfederazioetan, Ura – Uraren Euskal Agentzian edota arlo horretako beste agintaritzetan. Azkenik, 629/2009 Dekretuak Ingurumen Kalitatearen Zuzendaritzari esleitzen dizkio (eta organo horren barruan dago Ikuskaritza Zerbitzua) ingurumenaren zaintza-, ikuskaritza- eta kontrol-lanak.

Ikuskapenak bi talde handitan bana daitezke: batetik, baimentze-prozedurekin lotutako egiaztapen-bisitak eta, bestetik, ingurumenaren arloko araudia eta baimentze-baldintzak betetzen diren egiaztatzekoak, hau da, ikuskapenak berak. Ingurumeneko Sailburuordetzaren kasuan, lehenengoak baimenak ematen dituzten zerbitzuekin lotzen dira, eta bigarrenak, berriz, Ikuskaritza Zerbitzuari dagozkio, gainontzeko zerbitzuekin koordinatuta; hala ere, aurrez esan den bezala, azken urteetan Ikuskaritza Zerbitzuak IPPC bete behar duten jardueren baimentze-izapideekin lotutako ikuskaritza-lanetan kolaboratu du. III. Esparru Programan ezarritako administrazioaren eta administratuaren arteko harreman-ereduaren aldaketari dagokionez, berriki onartu dira ingurumen-prozeduren izapidetze elektronikoa eta Ingurumen Lankidetzako Erakundeen erregistroa arautzen duten dekretuak. Horrek Ikuskaritza Zerbitzuari aukera emango dio ikuskaritza-programetan erakunde horien laguntza izateko.

Ikuskaritzaz gainera, Ikuskaritza Zerbitzuari dagozkio ingurumenean eragina izan dezaketen gertaera edo istripuei buruzko ohartarazpen, kexa eta salaketen kudeaketarekin lotutako eginkizunak, bai eta EAEn ingurumen-erantzukizuneko araudia aplikatzearekin zein produktu kimikoen araudia (REACH) ikuskatzearekin lotutakoak ere.

2.6.– Ikuskaritza-planaren irismena.

Hona hemen Eusko Jaurlaritzaren Ingurumenaren arloko ikuskaritza-plan honen irismena, arloka banatuta:

i. **Geografikoa:** Euskal Autonomia Erkidegoa.

ii. **Denbora:** 2011tik 2018ra; baina urteko programen bidez gauzatuko da.

iii. **Ikuskaritzaren objektua:** administrazio-prozedura jakin baten mendeko jarduerak (industria-jarduerak, gehien bat); prozedura horren arabera, EAEko ingurumen-organoak eskumena du ikuskapenak egiteko edo eskumena duten beste ingurumen-agintaritza batzuekin batera ikuskapenetan parte hartzeko.

iv. **Araudia:** besteak beste, aireari, urari, hondakinei, lurzoruei, arriskuen prebentzioari, ingurumena babesteari, gai kimikoei zein horien nahasketari buruzko zuzeneko aplikazioko araudi europarra, estatukoa zein autonomikoa ikuskatuko da.

v. **Ikuskaritza-estrategia:** eskuragarri dauden tresna guztiak erabiliko dira, hala nola, araudia bete dadin sustatzea, programatutako ikuskapenak (bulegokoak, *in situ*, kontu-ikuskapenak, alderdi espezifikoen jarraipena, bilerak, etab.), programatu gabeko ikuskapenak, berriki onartutako Dekretuarekin bat etorrita erregistratutako Ingurumen Lankidetzako Erakundeen egiaztapen eta kontrolak, erakunde horien fiskalizazioa eta iturri-esleipenen azterketak.

3.– HELBURUAK ETA ESTRATEGIA.

3.1.– Ikuspegia eta helburu estrategikoak.

2002-2020 aldirako Garapen Jasangarriaren Euskal Ingurumen Estrategian ezarritakoarekin bat etorrita, Ingurumen arloko Ikuskaritza eta Kontrolerako Planak ikuspegi hau du: ***ingurune garbi eta osasungarria lortzeko ahaleginak egitea, EAEko airearen eta lurzoruen kalitatea hobetuz, eta hondakinak sortzeari aurre hartu ez ezik, hondakinon balioa ateratzea, EAEn garatzen diren jarduera ekonomikoei ingurumen-araudia betearaziz.***

Horretarako, helburu estrategiko batzuk zehaztu dira, Ingurumen arloko Ikuskaritza eta Kontrolerako Planean jasotako jarduketa guztiak bideratu behar dituztenak:

i. *EAEko IPPC Legearen mendeko enpresek ingurumen-araudia betetzen dutela bermatzea.*

IBBetan eskatutako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko ikuskapenetan ikusi ahal izan da operadoreak baldintza egokietan daudela ezarritako eskakizunak betetzeko. Hurrengo pausoa da kutsadura-ahalmen handieneko enpresek bermatzea iraunkorki beteko dituztela ingurumen-legeak, erantzukizun hori beren gain hartuz eta ingurumen-araudia betetzeko autokontrolak tresna gisa erabiliz.

Plan honen eraginetarako, kutsadura-ahalmen handieneko enpresak IPPC araudiak eragindakoak izango dira eta, etorkizunean, berriki onartutako Industria Isurpenen Zuzentarauak eragindakoak ere bai.

Enpresa horietan, hasitako bidean aurrera egitea izango da helburua, hau da, autokontrolaren bidez ingurumen-araudia betetzeko erantzukizuna beren gain hartzea. Gainera, Industria Isurpenen Zuzentarauak ezartzen du, alde batetik, administrazioak bermatu behar duela IBBan ezarritako baldintzak betetzea eta, bestetik, industria mota horietan ikuskapenak egiteko maiztasuna eta irizpideak zehaztu behar dituela, bai eta horiek gauzatzean prestatu behar diren txostenak ere.

ii. *Ingurumenerako arriskurik handiena dakarten legeztatu gabeko jarduerak identifikatu eta legeztatzea.*

Helburu hori betetzeko, ingurumenaren ikuspuntutik (eta aplikagarriak zaizkien alderdi guztietan) behar bezala legeztatu gabe dauden enpresak bilatu behar dira, eta administrazioaren esku-hartzerik egokiena erabili, kasu bakoitzean, enpresa horiek arautzea eskatzeko.

Gaur arte, administrazioak ahalegin handiak egin ditu legeztatuta dauden edo legeztatze bidean diren jarduerak baimendu, kontrolatu eta ikuskatzeko. Hurrengo urteetan jarduera guztien datu-baseak sortuko dira, oinarrizko baimenak ez dituzten enpresak identifikatzeko helburuarekin. Azken horiek ikuskatzearen asmoa enpresok legeztatzea izango da, hain zuzen ere, eta lan hori enpresen jarduerei lotutako ingurumen-arriskuan oinarrituta programatuko da.

iii. *Arriskurik handiena duten eta IPPC Legearen mende ez dauden jarduerek ingurumen-araudia betetzea, ingurumenean kalte esanguratsua eragin dezaketen alderdiei berebiziko garrantzia emanda.*

Lehenengo Planean, IPPC enpresetan egin ziren ahaleginik handienak. Horiek araututa daudenez, eta araudia betetzeko autokontrolera bidean, IPPC ez diren eta ingurumenean kalterik handienak eragin ditzaketen EAEko ekoizpen-sektoreak identifikatuko dira orain.

Sektore horietan IPPC enpresekin egin duen antzera jardungo da Ikuskaritza Zerbitzua. Lehenbizi, diagnosia egingo da erregistratutako Ingurumen Lankidetzako Erakundeen sostenguarekin, administrazioarentzat zein sektore pribatuarentzat erabilgarria izango den egoeraren ebaluazio bat lortzeko; bigarrenik, ingurumenerako arrisku gehieneko kasuetara bideratuko dira Ikuskaritza Zerbitzuaren baliabide mugatuak, esku-hartze administratiboa gauzatzeko.

iv. *Sortzen dituzten hondakinen kopurua edo arriskugarritasuna dela eta, ingurumenerako kaltegarrienak diren jarduerek hondakinen kudeaketako araudia betetzea.*

Aldi horretan egiaztatuko da hondakin arriskutsuen zein arriskutsuak ez direnen mugimenduak indarrean dagoen legeria betetzen dutela, hondakinak kudeaketa-bide egokietara joaten direla ziurtatuz. Aldi berean, Ingurumeneko Sailburuordetzan jasotzen den dokumentazioak hondakinen benetako mugimenduekin bat egiten duela egiaztatuko da.

v. *EAEko industria-jarduerekin lotutako ingurumen-arazoak konpontzen edo kontrolatzen laguntzea.*

Atal honetan industria-jarduerei lotutako ingurumen-arazoak dituzten ingurune geografikoak identifikatuko dira, bai eta dagozkien ekintza-plan bereziak diseinatu eta gauzatu ere, Ikuskaritza Zerbitzuak, bere eskumenen esparruan, eragin edo kalteak kontrolatu edo konpontzen lagun dezan.

Arazo-guneak bilatzeko oinarrizko iturriak hiru multzotan banatzen dira: EAEko airearen, uren eta lurzoruen ingurumen-kalitatea zaintzeko sareak, erakundeek egindako azterketak eta gertaera edota ohartarazpenen datu-baseak. Ekintza-planak prestatzeko, diagnosi- eta karakterizazio-fase bat baliatzen da lehenik eta, ondoren, ekintza zehatzagoak proposatzen dira arazoak konpondu edo murrizteko.

vi. *Ingurumen-intereseko eremuak babestea ekonomia-jarduerek eragin ditzaketen ingurumen-kalteetatik.*

Ikuskaritzaren bidez bermatu nahi da legeria betetzen dutela, batetik, ingurumen-interes handia duten eremuei eragin diezaieketen guneetan kokatutako jarduerek, babestutako natur guneetan (2000 Natura Sarea, esate baterako) kokatutakoek, adibidez; eta, bestetik, pertsonen osasuna babesteko garrantzia berezia duten baliabideei (herriak hornitzen dituzten ur-masei, etab.) eragin diezaieketen guneetan kokatutakoek.

vii. *Ingurumenean eragina duten gorabeheren eta istripuengatiko ohartarazpenak, kexak eta salaketak kudeatzea.*

Aurreko planean hasitako ildoari eutsiko zaio, orain arteko lan-protokolo berarekin: gertaera baieztatu, lehenbizi, eta egoera bakoitzaren larritasunaren eta garrantziaren araberako erantzuna eman, ondoren.

viii. *Gai kimikoen eta nahasketen araudia (REACH-CLP) betetzea, ingurumenerako arrisku handieneko kasuetan.*

Gai kimikoen eta nahasketen araudia (REACH-CLP) betetzen dela ikuskatuko da, arlo horretan eskumenak dituzten Eusko Jaurlaritzako sailekin lankidetzan. ILPNASen ekintzak ingurumen-hobekuntzak lortzera edo inguruneko arriskua murriztera bideratuta egongo dira, bai eta, aldi berean, administrazio-baliabideak optimizatzera ere.

ix. *Zerbitzuaren ikuskatzeko gaitasuna handitzea.*

Aldi honetan zehar baliabideak optimizatzeko lanei eutsiko zaie, ekintza hauen bidez:

- Ikuskaritza Zerbitzuko langileak prestatzea, gaitasun teknikoa ziurtatzeko oinarri gisara;

- prozesuak automatizatzea, jarduketa ezberdinetarako prozedurez osatutako kalitatezko sistema bat ezarriz, eta ikuskaritza-lana erraztuko duten informatika-tresnak garatuz;
- Sailburuordetzako zerbitzuen sostengu espezializatua jasotzea; eta
- laguntza teknikoak, erregistratutako Ingurumen Lankidetzako Erakundeak, kudeaketa aginduak, etab. baliatzea Zerbitzuari esleitutako eginkizun teknikoetarako sostengu gisara.

x. *Ikuskapenak Europako testuinguruaren arabera egitea, helburuei, estrategiari zein irizpideei dagokienez.*

Helburu hau betetzeko, Ikuskaritza Zerbitzuak aktiboki parte hartuko du ez bakarrik autonomia-erkidegoen eta ILIIMen REDIA ikuskaritza-sarean, baina baita IMPEL Europako ikuskaritza-agintaritzekin ere; horrela, EAEko ikuskaritza-jarduketak indarrean dagoen legeriarekin bat etorrita ez ezik, estatuan zein Europan garatzen ari direnekin bat gauzatuko dira.


3.2.– Ikuskaritza-estrategia eta helburu espezifikoak.

3.2.1.– Ikuskaritzaren antolamendua.

Ingurumenaren arloko Ikuskaritza eta Kontrolerako Plan hau ikuskaritzaren helburu estrategiak ezartzeko diseinatuta dago, Garapen Iraunkorrerako Euskal Ingurumen Estrategiatik abiatuta; aldi berean, helburu horiek lortzeko antolamendu-oinarriak finkatzen ditu.

Horrela, urte anitzeko Plan hau urteko programen bidez betearaztea proposatu da; azken horietan finkatuko dira dagokion urterako proiektuak zein horien helburu eta jomugak, helburu estrategikoetatik abiatuta, beti ere.


Urteko programak ikuskaritza-proiektu espezifikoen bidez gauzatuko dira, esan bezala, eta proiektu horietan xehatuko dira programetan ezarritako helburu espezifikoak lortzeko ekintza zehatzak. Proiektuotan zehaztuko dira, besteak beste, ikuskatu beharko diren jarduerak, horien teknikari arduraduna, ekintzak edota ikuskapenak egiteko epea eta proiektuaren kudeaketa-adierazleak. Urteko programetan jasotzen ez diren proiektuetan ere zehaztu beharko dira dagozkien helburu eta jomuga espezifikoak.



Ingurumenaren arloko Ikuskaritza eta Kontrolerako Plana agiri publikoa izango da eta Ingurumeneko Sailburuordetzaren ebazpen bidez onartzeko izapidetuko da, Ingurumeneko Aholkularitza Kontseiluak eta Ingurumen Batzordeak beren txostena egin ondoren.

Urteko ikuskaritza-programak eta urteko memoriak Ingurumen Batzordeari dizkio ingurumenaren arloan eskumena duen Sailburuordetzari, azken honek onar ditzan.

Azkenik, proiektuek barne-lanerako dokumentu gisa balioko dute, ingurumenaren arloko ikuskaritza- eta kontrol-eginkizunak esleituta dituen Sailburuordetzako Zuzendaritzak onartu ondoren.



Ikuskaritza Zerbitzuko giza baliabideen antolaketari dagokionez, aurreko Planean hasitako moduari eutsiko zaio, hau da:

a) Ingurumenaren alderdi ezberdinen (airea, ura, lurzoruak, hondakinak, zarata eta bibrazioak, aurre hartzeko neurriak, REACH eta CLP, etab.) ikuskaritza integratua, administrazio-egintza bakar batean. Horrek ez du esan nahi ikuskapen guztietan alderdi guztiak egiaztatuko direnik, baina hala egitea beharrezkotzat jotzen bada aipatu moduan gauzatuko dira.


b) Lurraldeen araberako ikuskaritza. Ikuskaritza Zerbitzuaren lurralde-egiturari eutsi eta hori garatzea, azkarrago eta biziago erantzuteko lurralde bakoitzaren beharrizanei. Planaren iraunaldian aintzat hartuko da EAEko urteko programez gainera lurralde-programak egiteko aukera ere, lehenengoak prestatzeko euskarri gisa balio dezaten.

3.2.2.– Emaitzetan eta arriskuetan oinarritutako kudeaketa.

Ingurumenaren arloko Ikuskaritza eta Kontrolerako Plan hau da Ikuskaritza Zerbitzuaren agiri nagusia, eta ingurumen-emaitzetan eta ingurumen-arriskuak murriztean oinarritutako baliabideen kudeaketa-ereduari men egiten dio.

Ikuskaritzaren ohiturazko kudeaketa-eredua jarduera-adierazleetan oinarritu izan da, hala nola, egindako ikuskapen-kopuruan edo izapidetutako isun-kopuruan. Plan honekin, berriz, kudeaketa ingurumen-emaitzen adierazleetan oinarritzearen alde egin da, beheko irudian laburbiltzen den eredu logikoari jarraiki.

Eredu honen arabera, lehenbizi baliabide jakin batzuk sartzen dira sisteman eta, bigarrenik, prebentziozko ikuspuntua izaten duten ikuskaritza-egintzak gauzatzen dira, agintaritzari eutsita, ondoren bitarteko emaitzak lortu eta, azkenik, ingurumenaren arloko emaitza edo hobekuntzak iristeko. Urrats horietako bakoitzari kudeaketa-adierazle batzuk dagozkio.



Baliabideen adierazleak, hala nola, teknikarien kopurua eta kontratatutako laguntza teknikoa, oso erraz kudeatzen dira. Adierazleak jaso eta interpretatzeko lana zaildu egiten da, ordea, sisteman aurrera egin ahala. Izan ere, estatu kide guztietan zailtasun nabarmenak dituzte ingurumen-emaitzen adierazleak sistematikoki erabiltzeko. EAEn, proiektu guztietan helburu eta jomugak argiro finkatzea proposatu da, eta horiek proiektu bakoitzari atxikitako adierazle espezifikoak edukitzea.

3.2.3.– Ingurumen-araudia bete dadin sustatzea.

Sustapena ikuskaritzaren jarduera osagarritzat jotzen da azken helburua lortze aldera, hots, araudia iraunkorki betetzea. Sustapen-ekintzak ikuskaritza egin aurretik proposatzen dira, oro har, edo ikuskaritza-prozesuaren lehenengo fase gisa, hura hastean.

Sustapen-lana IHOBEren eta ingurumen-arlo ezberdinetan eskumenak dituzten Sailburuordetzako zerbitzuen bidez egiten da, bai eta Ikuskaritza Zerbitzuaren bidez ere. Egitekoen artean hauek nabarmendu daitezke:

i. Araudi berria eta horren eskakizunak hedatzea argitalpen edo jardunaldien bitartez.

ii. Araudia betetzen lagunduko duten lantegi edo prestakuntza-ikastaroak antolatzea.

iii. Ingurumen-araudia zer neurritan betetzen den jakiteko autodiagnosiak.

iv. Ikuskaritza Planari eta horren prozedurei buruzko jardunaldiak, besteak beste.

v. Enpresei sariak eman edo beren lana aitortzea. EMAS ziurtagiria, esate baterako.

Egiteko horien organo arduradunak koordinatuta daude eta, ikuskaritza lehen aldiz egiten den enpresetan, araudia betetzen den mailari buruzko autodiagnosi-kanpainak egiten dira, edo ikuskaritzaren prozedurei eta helburuari buruzko informazio-jardunaldiak.

3.2.4.– Ikuskaritza-baliabideak.

Hauek dira Ikuskaritza Zerbitzuaren giza baliabideak: arduradun bat, ikuskaritzako zortzi teknikari eta administrari laguntzaile bat; horrez gainera, sostengu juridikoa du. Bi teknikari Bizkaiko bulegoan daude eta beste bi Gipuzkoan; gainerakoak, berriz, Lakuako bulego nagusietan daude. Urteko programak eskuragarri dauden baliabideetara doitzen dira, nolanahi ere, baliabideen zuzkidura egokia egotea sustatzen da, edo beste irtenbide batzuk bilatzen dira Planaren helburuak bete ahal izateko bitarteko espezifikoagoak eskura edukitzeko.

Laginak jaso eta aztertzeko behar diren baliabide materialei dagokienez, Ikuskaritza Zerbitzuak baimendutako kontrol-erakundeen zein kreditaturiko laborategien laguntza izango du. Gainera, landa-lana egiteko (laginak hartzeko eta neurketak egiteko) oinarrizko materiala edukiko du. Ohartarazpenak kudeatu eta ingurumen-arazodun egoerak deskribatzeko, aldiz, unitate mugikor bat izango du. Unitate horrek analisi-ekipamendu aurreratua eramango du konposatu organikoentzat, hots, gasen kromatografoa edo masen espektrometroa. Ikuskaritza Zerbitzuak Osasun eta Kontsumo Saileko Osasun Publikoko Laborategiaren lankidetza izango du unitate hori ustiatu eta mantentzeko.

Airearen kalitateari dagokionez, Airearen Kalitatea Zaindu eta Kontrolatzeko Sarearekin lankidetzan arituko da, Sare horrek neurketa automatikoko estazioak baititu, finkoak zein mugikorrak, bai eta giroko airearen laginak hartzeko bitartekoak ere.

3.2.5.– Gaitasun teknikoa.

Ingurumenaren arloko Ikuskaritza eta Kontrolerako lehen Planaren eskarmentuak modu argian azaleratu zuen ikuskaritzako langileek gaitasun tekniko egokia izateko beharrizana, enpresa-sektoreak eskatzen duen gisara.

Hori dela eta, prestakuntza-prozedurak bultzatuko dira, une honetara arte Ikuskaritza Zerbitzuan egin izan den ildotik. Funtsean, ikuskaritzako teknikarien prestakuntza-beharrizanak identifikatuko dira, Zerbitzura sartu diren langile berrien beharrizanak eta prestakuntza jarraituarenak bereizita.

Langile berrien kasuan, prestakuntza harrera-prozesu batean oinarrituko da, langileek administrazio-prozeduren arloan, oro har, eta ikuskapenarenean, zehazki, duten eskarmentura moldatuko dena. Horrez gainera, prestakuntza teknikoa emango zaie ingurumen-bektore bakoitzari buruz (airea, ura, lurzoruak, hondakinak, usainak, zarata, etab.). Horren guztiaren osagarri gisa, langile berriei prestakuntza praktikoa emango zaie, begiratu besterik egin beharko ez duten ikuskapen-bisiten bidez, ikuskaritzako teknikari nagusi gisara bisitak egiteko gai izan arte.

Ikuskaritzako teknikarien gaitasun teknikoa ziurtatzeko, berriz, langile-arloko zuzendaritzarekin lan egingo da lanpostuetarako profilak zehaztu eta monografiak prestatzeko.

Prestakuntza jarraitua aintzat hartuta, prozedurak prestatu eta sistematizatu egingo dira bai beharrizanak identifikatzeko, bai prestakuntza-jarduerak gauzatzeko, eta bai jarduera horiek zein Zerbitzuko kideek jasotako prestakuntza erregistratzeko ere.

3.2.6.– Koordinazioa.

Ikuskaritza-jarduna zeharkakoa da Saileko hainbat lan-eremurentzat eta, gainera, Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuekin bat egiten duten eskumenak daude, bai eta URA - Uraren Euskal Agentziarekin, Estatuko Administrazioarekin eta tokiko erakundeekin ere. Hori dela eta, koordinazioa oso garrantzitsua da plangintzan zein plana gauzatzeko orduan baliabideak optimizatzeko eta helburuak lortzeko.

Hala, bada, ingurumen-ikuskaritza mota ezberdinetan esku hartzen duten administrazioekin harreman zuzenean egotea aurreikusita dago, eta beste administrazio batzuetako ordezkariak ere bertara daitezkeen bisitak egitea. IPPC bete behar duten jardueren ikuskapenetan, programazioaren berri emango zaio zerikusia duten Sailburuordetzako zerbitzuei, Uraren Euskal Agentziari eta udalei, erakunde horietako teknikariak ikuskapen-bisitara bertaratzeko aukera izan dezaten.

Koordinazioa ikuskaritzako fase guztietan egongo da: plangintzan, bisitaldien prestakuntzan, horiek gauzatzeko unean eta jarraipen-jardueretan. Koordinazio horretan oinarrizkoa izango da informazioa eskuragarri izatea: batetik, ikuskatzaileek eskura izan beharko dute egiaztatu behar diren jardueren espedientea eta, bestetik, zerikusia duten gainerako zerbitzuek eskura izan beharko dituzte ikuskapeneko aktak eta txostenak. Horretarako, Ikuskaritza Zerbitzua eta Ingurumen Sailburuordetzako gainontzeko zerbitzuak koodinatzeko prozedurak garatuko dira. Era berean, aplikazio informatikoak garatzen ari dira, datuak IKS-eem sisteman integratuz, koordinazio-lan horiek errazteko.

Larrialdiengatiko oharren kudeaketan, Euskal Autonomia Elkarteko Babes Zibilerako Batzordea izango da Herrizaingo Sailarekin eta lotutako gainerako sailekin koordinatzeko foroa.

Gaur egun eratuta dago, jadanik, produktu kimikoen araudia (REACH-CLP) aplikatzeko eta ikuskatzeko lanari ekiteko mahaia. Mahai horretan zehaztuko dira arloan eskumenak dituen erakunde bakoitzaren zereginak.

Autonomia-erkidegoek eta estatu kideek IBBak ikuskatzeko lanak koordinatzeko REDIA eta IMPEL sareak baliatuko dira, hurrenez hurren. Sare horien bitartez proiektu espezifikoak abiaraziko dira, autonomia erkidegoek ikuskaritza-eremu horretan egin beharreko lanetarako erreferentziak ezarriko dituztenak.

3.2.7.– Kalitatea ziurtatzea.

Ikuskaritza Zerbitzuaren asmoa da aitortutako ospea duten arlo honi buruzko arauetan ezarritako kalitate-irizpideekin lan egiten jarraitzea.

Kalitatea bermatzeko lana zerbitzuaren jarduketetarako prozedurak prestatzean oinarrituko da, finkatzen diren heinean, eta Ikuskaritza Zerbitzuaren emaitzetan (akta, txosten eta proiektuetan, funtsean) kalitate-kontrol bat ezartzean.

4.– JARDUKETA-MULTZOAN LEHENTASUNAK EZARTZEA

4.1.– Ikuskaritza Zerbitzuaren eginkizun-zerrenda.

Ikuskaritza Zerbitzuaren eginkizunak lau taldetan sailka daitezke:

i. Ikuskapenak egitea.

ii. Ohartarazpenak eta larrialdiak kudeatzea.

iii. Ingurumen-erantzukizuneko araudia aplikatzea.

iv. REACH eta CLP araudiak.

4.2.– Ikuskaritza Zerbitzuko eginkizunetan lehentasunak ezartzea.

Aurreko atalean aipatutako eginkizunen artean, ohartarazpen eta larrialdien kudeaketak lehentasuna du besteen aurretik, eta bigarren tokian legoke ikuskapenak egitea.

Zerbitzuaren baliabideen erabilpena hobetze aldera, ohartarazpen eta larrialdien kudeaketa ikuskaritza-ekintzatzat hartzen da, praktikan, lan-prozedura berberak erabiltzen baitira.

Hala eta guztiz ere, Ingurumeneko Ikuskaritza Zerbitzuak ahal bezain azkarren ekitea lortu nahi da, ingurumen-arazoei, kexei zein salaketei aurre hartzeko.

4.3.– Ikuskaritza-jarduketen zerrenda.

Helburuetan ezarritakoaren arabera, ikuskaritza-jarduketak talde hauetan bil daitezke:

a) Sektoreka programatutako ikuskapenak IPPC instalazioetan eta IPPC ez diren instalazioetan. Ikuskapen horien artean sartuko dira gai kimikoen araudia betetzeko ikuskaritza-jarduketak.

b) Ohartarazpenen kudeaketa (kexak, salaketak, larrialdiak, etab.), programatu gabeko ikuskapenekin lotuta.

c) Programatutako jarduera eta ikuskapenak ingurumen-arazoak konpontzeko edo balio handiko baliabide naturalak babesteko.

d) Ikuskatu beharreko jarduera ekonomikoen (enpresen) datu-basea egitea.

e) Hondakinen leku-aldatzeak ikuskatzea.

f) Batzorde teknikoetan parte hartzea, hala nola, ILIIM, Babes Zibila, Industria Segurtasuna, produktu kimikoak, REDIA, IMPEL…

g) Zerbitzuaren kudeaketa: barne-prozedurak, tresna informatikoak garatzea, prestakuntza, etab.

4.4.– Ikuskaritza-jarduketetan lehentasunak ezartzea.

Azken bi jarduketa-taldeak zeharkakoak dira, eta oinarrizko izaera dute ikuskapenen funtzionamendu eta koordinazio egokirako; hori dela eta, urteko programetan aintzat hartuko da jarduera horietara baliabideak bideratzea, baliabide horiek ikuskaritzatik eratorritako lan-kargara doitzeko orduan.

Ohartarazpenen kudeaketa lehentasunezko gaia da, etengabe ikuskaritza-baliabide tekniko bat eskuragarri izan behar duena, gutxienez ere, bai eta kanpoko enpresen laguntza ere, beharrezkoa denean, hondakinen kudeaketarako eta beste zeregin batzuetarako.

Gainerako jardueretarako, hauxe izango da lehentasunen hurrenkera:

1. IPPC instalazioen ikuskapenak, legezko betebeharra delako.
2. Ingurumen-arazoei lotutako ikuskapenak.
3. Ikuskatu beharreko jardueren datu-baseak egitea, legeztatu gabeko enpresetan esku hartzeko.
4. Atmosferarako isurpenak modu jarraituan neurtzeko sistemak ikuskatzea.
5. Hondakinak lekuz aldatzeari lotutako ikuskapenak.
6. Ingurumen-balio handiko baliabide naturalak babestearekin lotutako ikuskapenak.
7. Ikuskapenak egitea IPPC ez diren jarduerei.


4.5.– Ikuskatu beharreko operadoreetan lehentasunak ezartzea.

Egin beharreko ikuskaritza-jarduketen lehentasunak aintzat hartuta, hurrengo pausoa zer enpresa ikuskatu behar den erabakitzeko irizpideak ezartzea da. Horretarako, bi metodologia erabiltzea aurreikusten da:

i. Jarduketetan lehentasunak ekoizpen-sektoreka ezartzea.

Metodologia hori kasu hauetan aplikatuko da, funtsean: IPPC instalazioei, IPPC ez diren instalazioei, legeztatu gabeko enpresei eta hondakinen leku-aldaketei. Lehentasunak ezartzeko irizpidea jarduerei atxikitako ingurumen-arriskua izango da. Gaur egun irizpide hori aplikatzen zaio IPPCari eta, horretarako, Erresuma Batuko Ingurumen Agentziak garatutako OPRA metodoan oinarritutako tresna berezi bat prestatu da. Horrez gainera, Ikuskaritza Zerbitzua IMPELen «Easytools» proiektuan parte hartzen ari da. Proiektu horren helburua antzeko tresna malgu eta erabilerraza garatzea da, estatu kide guztientzat erabilgarria izan daitekeena. Hori dela eta, egungo tresna berrikusi eta aipatutako proiektutik eratorritako alderdirik garrantzitsuenak txertatuko zaizkio, horrela Industria Isurpenen Zuzentarauko 23. artikuluan ezarritakoa betetzeko.

Arriskuaren* screening*a: irizpideak



ii. Ingurumen-arazoengatik edo ingurumen-intereseko guneak babesteagatik jarduketei lehentasuna ematea.

Metodologia honetan, lehentasunak ezartzeko irizpidea bakarra izango da, funtsean: jarduerek zer neurriko ekarpena egiten dioten ingurumen-arazoari edo babestu behar den baliabide naturala kaltetzeko arrisku nagusiari. Sistema hori erabili ahal izateko, garrantzitsua da hasierako diagnosia edukitzea (beharrizanen eta aukeren araberako zehaztasunez), iturriek dagokion arazoari egiten dioten ekarpena zehazte aldera.

Arazoa identifikatu eta deskribatu ondoren horren arriskua balioesten da eta, ezarritako irizpideen arabera, lehentasunak ezartzen dira.

5.– IKUSKARITZA-PLANA BERRIKUSTEA.

Plan honen iraunaldia 2011. urtetik 2018. urtera doa. Plana ofizioz berrikusiko da, ordea, Planaren oinarri gisa balio duen araudian edo Plana gauzatzeko oinarrizko baldintzetan aldaketa esanguratsuren bat gertatzen bada. Halakorik gertatuko balitz Plana berrikusiko litzateke, hortaz, eta jatorrizko Planarekin egindako izapideak (prestaketa, jendaurrean jartzea eta onarpena) errepikatu beharko lirateke.

Plana berrikustea arrazoitzeko adinako garrantzirik ez duten aldaketak, ordea, hura garatzeko diseinatutako urteko programetan sartuko dira.

6.– PLANA GAUZATZEKO ESPARRUA.

6.1.– Lan-protokoloak.

Ingurumenaren arloko Ikuskaritza eta Kontrolerako Plana urteko programen bidez gauzatuko da, eta azken horiek proiektuen bidez. Proiektuok ikuskaritzako teknikariek zuzenduko dituzte. Horrela, proiektu bakoitzeko arduradunak hartuko du bere gain helburuak, ekintzak, adierazleak, gauzatze-aldiak eta proiektuaren jarraipena zehaztuko dituen agiria prestatzeko lana. Proiektu horietako bakoitzean definitu beharko dira, orobat, hura gauzatzeko beharrezko giza baliabideak eta baliabide teknikoak ez ezik, jarraitu beharreko prozedura eta argibide zehatzak. Proiektuen multzoak osatuko du Ikuskaritza Zerbitzuko arduradunak gainbegiratuko duen urteko programaren oinarria.

6.2.– Informazioaren kudeaketa.

Atal honetan aintzat hartu behar da ikuskaritzako baliabideek eskuragarri izan behar dutela ikuskatu beharko diren enpresen espedienteetako informazio guztia, eta Ikuskaritza Zerbitzuak sortutako informazio guztia dagokion zerbitzuek baliatzeko moduan egon behar dela; gainera, araudiak ezartzen duenaren arabera, mekanismo egokiak antolatu behar dira herritarren informazioa eskuragarri izateko eskubidea bete dadin.

Espedienteetako informazioari dagokionez, badirudi IKS-eem sistemari eta horri txertatutako beste aplikazio batzuei esker informazio horretara azkar eta erraz jotzeko modua izango dela. Hain zuzen ere, ikuskaritza-bisitaldietan sortutako informazioa bildu eta kudeatzeko aplikazioa garatzeko orduan aintzat hartuko da tresna hori IKS-eem tresnarekin bateratzeko beharra, egokitzat jotzen diren zerbitzu guztiek ikuskaritza-espedienteak eskuragarri izan ditzaten.

Azkenik, ikuskaritzaren aplikazio informatikoan funtzionalitate bat garatuko da ikuskaritza-txostenak argitaratu ahal izateko, izan ere, horrela xedatzen du bere 23. artikuluan laster indarrean jarriko den Industria Isurpenen Zuzentarauak.

6.3.– Ekipamendua eta baliabideak.

Ikuskaritza Zerbitzuaren giza baliabideak eta baliabide materialak 3.2.4. atalean azaldu dira. Horrez gainera, badago Ikuskaritza Plana gauzatzeko diru-aurrekontu bat ere, ikuskaritza sostengatzeko egitekoak kontratatu ahal izateko, hala nola:

a) Ikuskapenetarako datu-baseak sortzea.

b) Diagnosi-azterketak egin eta irizpide teknikoak ezartzea ikuskaritza-lanetan lehentasunak finkatzeko.

c) Giroko airea kutsatzen duten iturriak esleitzeko azterketak.

d) Ingurumen-araudia bete dadin sustatzea.

e) Sektoreen ingurumen-ebaluazioak, ikuskapenak hasi aurretikoak, horien arreta eta ahalegina dagokien alderdietan jartzeko.

f) Ikuskaritza-bisitaldiak egitean eta informazioa kudeatzean beharrezkoak diren tresna lagungarriak garatzea.

g) Laginak hartzea eta ingurumen-laginen, airerako zein uretarako isurien eta hondakinen analisia egitea.

h) Ingurumenari eragiten dioten gorabehera eta istripuetan sortutako ohartarazpenak eta hondakinak kudeatzea.

7.– GAUZATZEA ETA INFORMAZIOA.

7.1.– Programatutako eta programatu gabeko ikuskapenen prozedurak.

Programatutako ikuskapenak urteko programan jasotako proiektuei dagozkie, eta programatu gabekoak, berriz, gorabehera eta istripuei buruzko ohartarazpen, kexa eta salaketen kudeaketari. Batzuen eta besteen arteko ezberdintasun nagusia da programatutakoetan xehetasun handiagoz presta daitekeela beharrezko informazioa, bai eta ikuskatuko diren alderdien plangintza zehatzagoa egin ere. Gainera, programatutako ikuskapenak osoagoak dira, ingurumen-alderdi guztiak aztertzen baitira; programatu gabekoetan, berriz, ikuskaritza-jarduketa eragin duen arazo edo gertaerarekin lotutako alderdiak soilik aztertu ohi dira.

Hori guztia kontuan hartuta, eta ikuskapen mota bietan erabilitako prozedura eta tresnak berberak badira ere, programatu gabekoetan prozedura eta tresnok moldatzen dira (aktak, batez ere), malgutasun handiagoa lortze aldera.

Aurreko Planean Ikuskaritza Gida bat prestatu zen, ingurumen-alderdi bakoitzean egiaztatu beharreko puntuak zehaztu eta horretarako metodologia finkatzeko. Gainera, datuak interpretatzeko lagungarria zen, araudia eta ingurumen-baimenetan jasotako eskakizunak betetzen ziren ala ez erabakitzeko orduan.

Gida hori etengabe eguneratzen da teknikariek inoiz gertatu gabeko zeregin berri bati aurre egiten diotenean, edo baldintzetan zein araudian aldaketaren bat gertatzen denean. Gidaz gainera, Zerbitzuak beste prozedura eta argibide batzuk jorratu ditu egokitzat jo izan duenean, ikuskaritza-jarduketak orekatu eta objektiboago bilakatu eta, horrela, ikuskapenak sendoagoak izan daitezen.

Ikuskaritza Zerbitzuak berariazko laguntza juridikoa jasotzen du ikuskapenetik ingurumen-diziplinarako bidea modu koordinatuan egin dadin. Horrekin batera, ikuskaritzari atxikitako ingurumen-diziplinako estrategia bat garatzeko asmoa dago, ingurumenaren arloko helburuak modu eraginkorragoan lortze aldera.

7.2.– Informazioa eta komunikazioa.

Ikuskapen-jardueren eta horien emaitzen informazioak zein jakinarazpenek Ingurumenaren arloko Ikuskaritza eta Kontrolerako Plana izango dute oinarritzat, urteko programa eta memoriekin eta ikuskaritza-proiektuekin batera. Hona hemen komunikazio-bideak:

a) Ingurumen Batzordearen eta Ingurumeneko Aholkularitza Kontseiluaren bilerak.

b) Sailaren web-orria.

c) Operadoreen ikuskapenetako txostenak; IPPCen kasuan operadoreari jakinarazi eta jendaurrean jarri beharko dira Industria Isurpenen Zuzentaraua indarrean jartzen denean.

d) Interesatutako alderdiekin antolatzen diren bilerak, hala nola, ikuskatu beharreko operadoreekin, jarduera ekonomikoen auzokideekin eta gobernuz kanpoko erakundeekin.

8.– IKUSKARITZAREN EBALUAZIOA.

8.1.– Emaitzen ebaluazio jarraitua: jarduketaren adierazleak eta emaitzak.

Plan honek emaitzetan eta arriskuetan oinarritutako ikuskaritza proposatzen du, 3.2.2 atalean azaldutako eredu logikoaren araberakoa. Adierazleen artean bi multzo bereiz daitezke: proiektu guztiek komunean dituztenak eta kasuan kasu aldatzen direnak, proiektuak ingurumen-helburu bat duelako (arazoren bat konpontzea, baliabideren bat babestea, etab.) edo sektore bati dagokiolako. Adierazle komunak alderdi hauei dagozkie:

a) baliabideei (ikuskatzaile-kopurua, kontratatutako laguntzak, ekipamendua, etab.); eta

b) jarduketei (egindako ikuskapen-kopurua, eskakizunak, zehapenak, etab.).

Sektoreko proiektuetan, aldiz, bitarteko emaitzen eta ingurumen-emaitzen adierazleak erabiliko dira, araudia betetzen den neurriarekin eta instalazioen arriskua murriztearekin lotuago daudenak. Azkenik, arazoren bat konpondu edo baliabideren bat babesteko helburua duten proiektuetan, jomuga horiexekin lotutako adierazle bereziak baliatuko dira.

Laburbilduz, proiektu bakoitzean finkatuko dira horien ebaluazio jarraitua egiteko aintzat hartuko diren adierazleak. Proiektuen arduradunak Zerbitzuaren arduradunari jakinarazi beharko dio, dela jarraipen-bileretan, dela aldizkako txostenen bitartez, zer nolako aurrerapenak egin diren edo zer zailtasun behatu dituen. Proiektu guztien adierazle-multzoak osatuko du, azkenean, urteko programa eguneratzea edo aldatzea ekarriko duen aginte-taula, lorpenetan edota aurkitutako oztopoetan oinarrituta.

8.2.– Beste sistema batzuekin alderatzea.

Ikuskaritza Zerbitzua REDIAren (autonomia-erkidegoen eta Ministerioaren Ingurumen Ikuskaritzako Sarea) eta IMPELen (Europako Esparru Ekonomikoaren ikuskaritzako ingurumen-agintaritzen sarea, Europar Batasuneko kideak eta kide ez diren beste estatu batzuk biltzen dituena) barruan dago.

Sare horiek ikuskapenen plangintza prestatu eta ikuskapenak gauzatzearekin lotutako proiektuak garatzen dituzte, eta osoko bileren bidez onartzen dituzte. Proiektu horien lehen fasean ikuskaritza-zerbitzu ezberdinetan egiten diren eginkizun-banaketak alderatu ohi dira, gainerako agintaritzentzat erreferentzia gisa balio dezaketen jardunbide egokiak identifikatze aldera. Modu horretan ikuskaritza-irizpideak nolabait bateratzea lortzen da, bai autonomia-erkidegoetan eta bai estatu kideen artean. Bateratze hori funtsezkoa da; izan ere, ingurumena babeseko tokiko ekintzak baino jarduketa globalizatuak behar direlako hatsarrea da Ingurumenaren arloko Ikuskaritza eta Kontrolerako Plan honen abiapuntuetako bat.

Proiektu horietako partaide izateari esker, estatuan zein Europan araudiari zein ikuskaritza gauzatzeko moduari buruz hartzen ari diren erabakietan esku hartzeko aukera du Ikuskaritza Zerbitzuak. Hori gutxi balitz, estatuan zein Europar Batasunean abian diren jarduketen esparruan kokatzen dute Zerbitzua. Horri esker baliabideak optimiza daitezke, eta egoera bakoitzean dagokion neurrian ekin.

8.3.– Interesatutako aldeei informazioa helaraztea.

Ikuskaritzako aplikazio informatikoa garatzeko orduan Industria Isurpenen Zuzentarauko 23. artikulua aintzat hartuko da, eta funtzionalitate bat prestatuko da dagozkion txostenak sortzeko eta emaitzak ikuskatutako operadoreei jakinarazteko, bai eta emaitzok biztanleriaren esku jartzeko ere.

Gainera, Zerbitzuak garatutako proiektuen jarraipen partzialeko txostenak prestatuko dira; azken horiek ez dira publikoak izango, baina urteko txostenak bai, Ikuskaritza Zerbitzuaren jarduketen Urteko Memorian sartuko baitira. Hala, bada, beste funtzionalitate bat prestatuko dute aplikazio informatikoan Urteko Memoria hori web-orrian plazaratzeko.

Proiektuek irauten duten bitartean, bilerak antolatuko dira interesatutako alderdiekin egokitzat jotzen den bakoitzean, ingurumen-arazo jakin bat konpontzera bideratutako proiektuetan, bereziki.

ERABILITAKO LABURTZAPENEN ZERRENDA

IBB: Ingurumeneko baimen bateratua.

EAE: Euskal Autonomia Erkidegoa.

CLP: Gai kimikoen eta nahasketen Sailkapena, Etiketatzea eta Ontzikiratzea (*Classification, Labelling and Packaging*).

ILPNAS: Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila.

IHOBE: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren sozietate publikoa.

IMPEL: Estatu kideen eta Europako Esparru Ekonomikoaren ikuskaritzako ingurumen-agintaritzen sarea.

IPPC: Kutsaduraren prebentzioari eta kontrol integratuari buruzko araudia.

ILIIM: Ingurumeneko eta Landa eta Itsas Inguruneko Ministerioa.

OPRA: Operadorearen kudeaketan oinarritutako arriskuen ebaluazioa.

REACH: Gai kimikoen erregistroari, ebaluazioari, baimentzeari eta murrizketari buruzko araudia.

REDIA: Ingurumenaren arloko Ikuskaritza Sarea, autonomia-erkidegoen eta ILIIMen parte-hartzearekin.